

2023-2027
Agintaldia

Bilbo

**101 premiazko
neurri bilbotarron
bizitza hobetzeko**

EGINGO DUGU. ehbildu

Aurkibidea

Gobernantza kooperatiboa	4
Berdintasuna	5
Aniztasuna	6
Gazteria	8
Enplegua eta ekonomia	9
Etxebizitza	10
Zerbitzu publikoak	11
Zaintza	12
Ekipamenduak, espazio publikoa eta ingurugiroa	13
Merkataritza	15
Mugikortasuna eta irisgarritasuna	16
Kultura	17
Euskara	19
Trantsizio politikak	20
Digitalizazioa	21

Gobernantza kooperatiboa

- 1 Bilboko Herritarren Partaidetzarako Araudia.** Esparru berri bat, parte-hartze politikorako bideak zehaztuko dituen eta auzoen errealitatea eta erabakiak kontuan hartuko dituen.
- 2 Partaidetza Sozialerako eta Barrutiko Kontseiluen ahalduntzerako Kontseiluak,** erabakitze gaitasunik gabeko kontsulta organo hutsak izatetik udal politikak lantzeko prozesuaren parte izatera igaro daitez.
- 3 Bilboko Hiri Batzarra.** Kontsulta organo bat, hiri dimentsioko eragile eta gobernu arlo guztiak bilduko dituen, eta Hiri Agenda egitea izango duena eginkizun nagusi.
- 4 Bilboko partaidetzazko plataforma digitala.** 'ZureEsku'. Herritarren eta Udalaren arteko topaketa eta elkarrizketa kanal erregularra, iritziak eta proposamenak eztabaidatzeko eta jasotzeko, udal-politikan eraginez.
- 5 Polizia-eredu demokratikoa.** Auzoetako gizarte, merkataritza eta komunitate sarearekin harremana izango duen polizia eredu baten alde egiten dugu, polizia lanaren prebentzio ikuspegia oinarrian izango duena. Kultura aniztasunaren, arrazakeriaren aurkako indarkeriaren eta generoaren esparruan trebatutako polizia.

Berdintasuna

- 6 Udalerrian egindako **politika publiko guztietan genero-ikuspegia zeharka** sartzen dela bermatzea.
- 7 **Bilboko Emakumeen Etxea ezartzen laguntzea, mugimendu feminis-tarekin koordinatuta**, Koloretzek proposatutako proiektua abian jartzeko.
- 8 **LGTBIQ+** mugimenduei laguntzea **behatoki independente** bat sortzeko.
- 9 **Kontratazioetan berdintasun klausulak** txertatzen direla bermatzeko mekanismoak sortzea.
- 10 **Erakundeen arteko koordinazioa hobetzea**, batez ere arlo sozial, psikologiko eta judizialean, **indarkeria matxistari aurrea hartzeko, jarduteko eta erantzuteko**, langileak gehitzeko eta prestakuntza emateko behar besteko zuzkidura ekonomikoaren bidez.
- 11 **Indarkeria matxista kasuetan** arreta emateko eta adingabeei eta nerabeei arreta hori prebenitzeko **baliabideak hobetzea eta handitzea**.
- 12 **Emakumeek historian zehar** Bilboko hiri-eremuan eta kale-izendegian egindako **ekarpenak balioestea eta ikusaraztea**.

Aniztasuna

- 13 Bilbo Harrera hiria.** Gure udalerrira iritsi berriek behar dituzten behar materialak eta giza beharrak bermatuko dituen harrera egiteko aurrekontu zuzkidura, gizarte zerbitzuekin eta hirugarren sektoreko eragileekin koordinatuta.
- 14 Gizarte zerbitzuak eta herritarren arreta eguneratzea,** eskaerei eta premiei erantzun egokia emateko askotariko biztanleei, bizikidetza klabeetan.
- 15 Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzua (SMUS) zabaltzea,** oinarritzko prestazioen zerbitzuaren **arreta ordutegia etengabe bermatzeko.**
- 16 Eguneko zentroetako ordutegiak zabaltzea,** baliabide horien erabiltzaileen gizarteratze eta laneratze prozesuak ez oztopatzeko.
- 17 Euskararen doako ikaskuntza bermatzea** eta udalerrian gizarteratzeko ardatz gisa erabil dadin **sustatzeko guneak sortzea,** adingabeei laguntzeko errefortzuan interes berezia jarritz.
- 18 Arrazakeriaren aurkako udal-protokolo bat egitea,** udalerriko eremu guztiak barnean hartuko dituena, arrazakeria prebenitzeko. Lan-ildoen diseinua eta garapena arrazializatutako eta migratutako pertsonen eta erreferentziazko agenteen parte-hartzearekin egingo da.

19

Herritarrak sentsibilizatzea eta prestatzea diskriminazio egoerei aurrea hartzeko, eta kultura aniztasuna eta elkar ezagutzea sustatuko duten espazioak sortzea bultzatzea.

20

Bilbon bizi diren pertsona guztien erroldatze prozesuetarako baldintzak berrikustea, egoera administratibo irregularra dutenei, barneko etxe-ko langileei, bizileku finkorik ez dutenei, alokairuko etxebizitza partekatzen dutenei eta erroldatzeko aukerarik ematen ez zaienei, besteak beste.

Gazteria

- 21** **Auzo guztietan, berariaz, etxebizitza publikoaren zati bat gazteen emantzipaziora bideratzea**, Errotze Plana bultzatuz.
- 22** **Gazteen enplegu-plana**. Gazteen langabeziari aurre egiteko, Bilboko gazteen beharretan eta asmoetan oinarrituta.
- 23** **Gazteentzako ikasketetarako ekipamenduak, auzoetan banatuta**, dauden udal instalazioak aprobetxatuz.
- 24** Hainbat gizarte erakunderekin batera, **gazteen etengabeko prestakuntzarako udal plan bat egitea**.
- 25** **Kultura sormenerako udal plana**, gazteei beren sormen gaitasunak garatzeko beharrezko espazioak eta materiala emateko.
- 26** **Auzoetan hutsik dauden lokalak egokitzea, entsegu-lokal eta sorkuntza-gune gisa erabiltzeko**, eta kultura alternatiboa garatzeko tresnak ematea.
- 27** Gazteen aisialdia, prestakuntza, harremanak eta denbora libre **autogestio-natua bultzatzea**.

Enplegua eta ekonomia

- 28 **Tasa turistikoa.** Turismo egonaldietan aplikatu beharreko tasa turistiko progresiboa ezartzea, enpleguaren dibertsifikazioan berriro inbertituz.
- 29 **Kolektibo kalteberentzako enplegu plana,** aukera berdintasuna sustatzeko, gizarte eta ekonomia bazterketari aurre egiteko eta laneratzea sustatzeko.
- 30 **Klausula sozialak berrikustea eta aplikatzea udal lizitazioetan, bai eta erosketa publiko arduratsuaren irizpideak ere.**
- 31 **Proiektu kooperatiboak eta/edo gizarte ekonomiakoak sustatzea,** Ekopoloari baliabide eta aurrekontu gehiago emanez.
- 32 **Udaleko enpleguaren kalitatearen alde egitea, azpikontratazio sistematikoarekin amaituz eta langileei baldintza eta soldata duinak bermatuz.**
- 33 **Udal-tasen bilketa progresiboa errentan oinarrituta.**
- 34 **Zerbitzuen kudeaketa publiko zuzenaren alde egitea,** zerbitzu publikoak pribatizatzeke ereduaren eta multinazionaleri emateko ereduaren aurrean.

Etxebizitza

- 35** **Hiriko gune tentsionatuak izendatzea, alokairuaren prezioa mugatu ahal izateko**, pertsonak eta familiek erosteko ahalmena gal ez dezaten.
- 36** **Udal etxebizitzaren parke publikoa handitzea, etxebizitza hutsak erosteari lehentasuna emanez**, hiri osoan banatu ahal izateko.
- 37** Inoren laguntza behar ez duten **adinekoentzako etxebizitza komunitarioak sortzea**, haien autonomia eta bizitza komuna sustatzeko.
- 38** **Turismorako etxebizitzaren kopurua zonaka mugatzea**, jasagarriak ez diren turismo ereduak auzoetako bizilagunak lekualda ez ditzaten.
- 39** **Legez kanpoko pisu turistikoaren gehikuntza kontrolatzea**, etxebizitza bulegoaren bidez.

Zerbitzu publikoak

- 40** **Lehen mailako arretarako sarbidea indartzea** eta bermatzea, osasun sistema publikoaren oinarri gisa, **etengabeko arretako guneak berreskuratuz**.
- 41** **Udal Anbulantzien Zerbitzua (SAMUR) berreskuratzea**, ezinbestekoa baita hirian arreta integrala eta kalitatezkoa emateko.
- 42** **Eskola publikoetako medikuntza eta erizaintza figura berreskuratzea**, bai eta gizarte laneko profesional batena ere, ikastetxearen kasuistikarengatik beharrezkoa den kasuetan.
- 43** **Hezkuntza, osasun, gizarte eta segurtasun zentroyen arteko sareko lan ekintza komunitarioaren eredia**.
- 44** **Gizarte larrialdietarako laguntzetarako aurrekontu partida handitzea**, gizarte bazterkeriako egoerak prebenitzeko edo saihesteko, bai eta laguntzak eskuratzeko baldintzak malgutzea ere.
- 45** Gizarte Zerbitzuen barruan, oinarrizko premien estaldura bermatzen dutenak indartzea, **jantoki eta aterpetxe sozialetako plazak ugarituz**.
- 46** **Gizarte bazterketa jasateko arriskuan dauden familientzako laguntza espezifikoak**, beren laguntza sareak indartzeari arreta berezia eskainiz.

Zaintza

- 47** Kontuan hartuta etxean jarraitzea dela beharra duten pertsonen aukera nagusia, **Etkez Etxeko Laguntza Zerbitzuak lagundu, hobetu eta handitzea, eta, horrez gain, zuzeneko kudeaketa publiko baterantz egitea.**
- 48** **Eriondoen Zentroa berriro irekitzea**, premia soziosanitarioak dituzten pertsonen suspertze prozesuan gainbegiratzea eta laguntzea lor dezaten.
- 49** **Gizarte zerbitzuak birpentsatzeko espazioak eskaintzea**, mendekotasuna duten pertsonen, zaintzaileen, langileen eta hainbat agenteren parte-hartzearekin, **zainketen eredu publiko komunitario baterantz** igaro ahal izan daitezen.
- 50** **Belaunaldien arteko proiektuen bidez auzoetan elkarguneak eraikitzea**, zahartzeari buruzko sentsibilizazioan eragina izango dutenak, nahi ez den bakardadeaz kontzientziazteko eta horri aurre egiteko.
- 51** **Zahartze aktiboa eta osasungarria bultzatzeko espazio publikoak** abian jartzea.
- 52** **Haurren eta Nerabeen Plana garatzea**, adingabeek beren eskubideez goza dezaten, auzoetako haurren sareak eta elkarrekin batera prebentzio eta komunitate jarduerak sustatuz.
- 53** **Haurreskolen zerbitzu publikoa Bilboko auzo guztietara zabaltzea**, egungo eskariari aurre egiteko.

Ekipamenduak, espazio publikoa eta ingurugiroa

- 54** Gure kale eta plazetan berdeguneak eta zuhaitzak handitzea eta zaintzea, hiriko tenperaturaren igoeraren aurkako estrategia gisa.
- 55** Bilboko gerriko berdea birnaturalizatzea, **Artxandako metropoli-parkea** garatzearen aldeko apustua eginez.
- 56** Gure mendien eta landa-lurren **Kudeaketa Iraunkorrerako Udal Plana**.
- 57** Eskola ingurune seguru, oinezkoentzako, bizikletentzako eta trafikoa baretzeko moduko batzuen alde egitea, eskola bideak garatzeko estrategia gisa.
- 58** Eskoletako instalazioak eskola orduetatik kanpo irekitzea, ekitaldi aretoak, jolastokiak eta kirol instalazioak aprobetxatzeko.
- 59** Zezen plaza udaleratzea, estaltzea eta eraberritzea, hiriko kulturaren oinarritutako erabilera anitzeko gune gisa.

- 60** **Trena lurperatu ondoren, Abandoko lubakia gure auzoak kohesionatu behar dituen aukera gunea da, alokairuko etxebizitza publikoen, auzoko ekipamenduen, berdeguneen eta geltokiaren egungo estalkiaren bidez, bizitza soziala dinamizatzeko gune handi gisa.**
- 61** **A-8 autobidea, Errekalden, hegoaldeko auzoen bizi-kalitatea hobetuko duen hiri eremu handi bihurtzea, berdeguneekin, ekipamenduekin eta etxebizitza publikoekin.**
- 62** **Casillako egungo pabiloia eraistea eta auzorako kiroldegi bat eraikitzea, Amezolako parkearen eta Casilda Iturrizar parkearen artean ardatz berde berri bat sortzeko, inguruko herritarren bizi kalitatea hobetzeko helburuarekin.**
- 63** **Hiriaren eta espazio publikoen diseinua ikuspegi feministatik birpentsatzea, emakumeen beharrak eta esperientziak kontuan hartuta, hiri-ingurune inklusiboak, seguruak eta irigarriak sortzeko.**
- 64** **Hiri segurua bizirik dagoen hiria da. Gure auzoetako espazioak biziberritzea proposatzen dugu, merkataritza, lana, aisia eta hurbileko zerbitzuak bermatzen baitituzte, 15 minutuko hiriaren filosofiari jarraituz.**

Merkataritza

- 65 Saltoki txiki eta ertainak babesteko **azalera handiak eta merkataritza-gune handiak irekitzea mugatu.**
- 66 **Merkataritza tradizionalari laguntzeko plana**, hiriaren nortasunarekin zerikusia duten saltokien biziraupena bermatzeko.
- 67 **Auzo periferikoetan edo langabezia tasa altuagokoetan irekitzeko lizentzia tasarako hobaria**, enplegu finkoak sortzeko helburuarekin.
- 68 **Auzoko saltokien jarraitutasunaren aldeko apustua egitea, alde biei laguntza eta aholkularitza eskainiz**, erretiroagatik edo beste arrazoi bazuengatik titulartasuna aldatzen denean.
- 69 **MarketPlace lokalak sortzea**. Tokiko saltokietako produktuak banatzeko plataforma logistikoa, banatzaile globalei aurre egiteko eta hurbileko merkataritza sustatzeko.
- 70 **Auzoen erdigunean hutsik dauden lonjak erostea, arrazoizko prezioetan alokatzeko**, hurbileko zerbitzuak eta merkataritza babesteko eta ekonomia solidarioa sustatzen duten jarduerak bultzatzeko.
- 71 **Txikizkako Merkataritzaren Plan Berezia**, hirian txikizkako merkataritza jarduera antolatzen duena eta merkataritza txiki eta ertaina babesten duena, batez ere Alde Zaharrekoa, **merkataritza kate eta frankizien inbasioaren aurrean.**

Mugikortasuna eta irisgarritasuna

- 72** **Hiriko Mugikortasun Jasangarriko Plana eguneratzea eta gauzatzea, hirian ibilgailu pribatuen kopurua murrizteko, garraio publikoaren sistemaren intermodalitatea hobetzeko eta garraio publiko eraginkorreragoa garatzeko.**
- 73** **Irisgarritasunla plan bat egitea auzoka.** Mugikortasuna errazten duten instalazioak barne (igogailuak, arrapalak, etab.) eta auzoei ekipamendu eta zerbitzuak emanez.
- 74** **Bizikleta sarea zabaltzea eta zentzua ematea,** auzoen arteko konektibitatea hobetuz itsasadarraren ardatzari arreta berezia jarriz eta bizikleta bidezko mugikortasunaren eguneroko erabilera bultzatuz, bizikletentzako apar-kaleku seguruen sare bat diseinatuz.
- 75** **BilbaoBizi zerbitzua 24 orduz berriro ezartzea, hasieran bezala,** geltoki berriak jartzea, batez ere metroko sarreretan, eta bizikleten benetako kopurua handitzea, bizikletaren eta garraio publikoaren arteko intermodalitatea bermatuz.
- 76** **Garraio publikoa. Bilbobusen berrantolaketa, ibilbideak eta ordutegiak zabaldua. Hegoaldeko auzoetarako metroaren L4a egitea. Metropoli-trena (metroa, trena, tranbia) ezartzea, txartel bakarrarekin, garraioaren ardatz egituratzaile gisa.**

Kultura

- 77** **Bilbon kultura bultzatu eta sustatzen duten pertsonen arteko elkar-
rizketarako gune bat sortzea**, hirian egiten diren jardueren programa-
zioan eta edukian esku har dezaketen neurriak eztabaidatu, adostu eta ira-
dokitzeko.
- 78** **Sormen zentro guztien mapa bat egitea eta horiek batera iragartzeko
estrategia integral bat planifikatzea.**
- 79** **Hiriko auzoetan kultura programaziorako aurrekontu partida handi-
tzea**, jai batzordeak eta tokiko kultura eragileak gure aliatu nagusiak direla
ulertuta.
- 80** **Auzoetan kultur sorkuntzarako diziplina anitzeko espazio libreak
sustatzea**, musika, dantza, antzerkia, tailerrak eta entseguak barne hartzen
dituzten jarduerak eskainiz.
- 81** **Komunitate espazio autogestionatuak bultzatzea kultura ekintzak eta
jarduerak egiteko.**
- 82** **Bilbon kultura aniztasuna sustatzea, euskal kultura ardatz hartuta.**
Halaber, migratzaileen kultura ezagutaraziko duten jarduerak sustatzea, bi-
zikidetza sustatzeko.

83

Euskal kulturaren forma berriak sustatzen laguntzea, ikuspegi berri-tzaile eta urbanoarekin.

84

Berezko eta euskarazko ekoizpenaren aldeko apustua egitea, eta gutxieneko ehuneko bat ezartzea kultur zirkuitu eta zentroen programazioan.

85

Auzoetako jaiek gutxienez 2 euroko aurrekontua izango dute biztanle bakoitzeko, eta horiek behar bezala garatzen lagunduko dugu, auzoetako jai esparruei beharrezko instalazioak emanez eta beharrezko azpiegitura eskuratuz.

Euskara

- 86** Kontratazio publikoan euskararen erabilera sustatzeko klausulak.
- 87** Zirkuituak eta arnaguneak identifikatzea eta sustatzea, bai sare publikoan, bai herritarren artean.
- 88** Hiriaren gizarte eta ekonomia sarea euskararen erabileraren eta sustapenaren politiken diseinuan eta finantzaketan inplikatzeari.
- 89** Hiriko hizkuntza-paisaian eragiteko neurriak.
- 90** C1era arte ikastearen doakotasuna euskaltegien sarearen bidez.
- 91** Euskara zeharkako baldintza: euskara Udal Ordenantzetan sartzea.

Trantsizio politikak

- 92 Tokiko energia trantsiziorako planak**, ingurumen inpaktua kontuan hartzen dutenak, hala nola karbono aztarna murriztea eta energia eraginkortasuna baloratzea.
- 93 Tokiko energia komunitateak eta Eraginkortasun Energetikoaren Udal Plana**, udal eraikinak energia kontsumo ia nulu gisa egiaztatu ahal izateko (NZEB).
- 94 Energia berriztagarrien hedapena**. Autokontsumo indibidual eta kolektiborako energia berriztagarriak ezartzeko tokiko politikak.
- 95 Energia merkaturatzaile publiko bat sortzea eraikin publikoetan ekoiztiko energia berriztagarria merkaturatzeko, eta energia salerosketako hitzarmenak egitea autokontsumoko komunitate energetikoekin.**
- 96 Zaborren tasaren hobaria, hondakin organikoak bereizi eta biltzea bultzatzeko.**

Digitalizazioa

- 97 Software librearen erabilera zabaltzea Udalean, gastuak murrizteko eta burujabetza teknologikorako urratsak emateko.**
- 98 Pertsona guztiek gailu digitalak eskuratzeko eta erabiltzeko laguntzak,** horretarako telekomunikazio konpainiekin eta gizarte eragileekin lan eginez, inklusio digitalaren inguruan erantzunkidetasuna sortzeko.
- 99 Oinarrizko trebetasun digitalei buruzko prestakuntza programak,** eten digitala amaitzeko eta pertsona guztiek teknologia digitalak eraginkortasunez erabiltzeko beharrezko trebetasunak dituztela bermatzeko.
- 100 Pertsona guztiek kalitatezko sare eskuragarria dutela bermatzea.**
- 101 Telekomunikazioen merkaturatzaile publiko bat sortzea, arrazoizko prezioak eta, aldi berean, sarbide unibertsala bermatzeko,** zerbitzuen kalitatea hobetzeko eta erabiltzaileen eskubideen babesa ziurtatzeko.

Bilbo

EGINGO DUGU. ehbildu